



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Prentsa-oharra

Durangoko Merinaldearen antxinako batzar-ohiturak berreskuratzen

•Gaur hasi dira Gerediagako Batzarretxea ikusteko eskola umeentzat antolatutako bisitaldiak. Bisitaldiok "Merioaren ibilbidea" izeneko ekintzari hasiera emon deusie. Gerediaga Elkarteak Bizkaiko Batzar Nagusien laguntzagaz antolatutako ekintza da hori.

Gerediagan, 2012ko azaroaren 27an

Landako ikastetxeko umeek topagune izan dabe gaur Gerediagako Batzarretxea, Durangaldekoen antxinako batzarlekua. Durangaldeko batzar bereziak Abadiñoko Gerediaga auzoan dagoan San Salbadore eta San Klementeren ermitearen aurrekaldean egiten ziran, Foru Aretxaren itzalpean eta landan biribilean jarrita egozan hamabi zutarrien inguruan, harri bat eleizate bakotxeko. Horixe da "Merioaren ibilbidea" izeneko ekintzaren interesguneetarikoa. Gerediaga Elkarteak Bizkaiko Batzar Nagusien laguntzagaz antolatutako ekintza da hori. Eskualdeko bisitari gazteek aukerea izango dabe ezagutzeko ia Erdi Arotik hasita Durangaldeko Merinaldeko herritarrek non hartzen ebezan erabagi politikoak.

Bisitaldiaren barruan, Gerediagako Batzarretxea ikusi dabe. Ermita hori berroneratzeko lanak 1995. urtean amaitu ziran. Bizkaiko Batzar Nagusiek egin ebezan lanok, ermiteak jatorriz eban zeregina berreskuratzearen eta bertan Bizkaiko ordezkariak, antxina egin zan lez, barriro be batzartu ahal izan eitezana. Ibilbidean beste gune interesgarri batzuk be ikusi ditue ikasleek, esaterako Momoitoko San Juan, Garai, Astolako auzitegia (Abadiño), Muntzaratz torrea (Abadiño), Sanagustinetxebarria (Elorrio) eta Elorrio herria bera.

Gerediaga Elkartearen ekimen hori 2009. urtean egin zan lehenengoz, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako Ondareari buruzko Europako Jardunaldien esparruan. Ekintza horretan, bada, goiz guztian zehar, aldeazurretik hitzordua eskatu daben (www.gerediaga.com web-gunean edo 94 681 80 66 telefonora deituta) ikastetxeetako ikasleak Durangoko Merindadea izan zanaren lekurik adierazgarrietatik ibiliko dira eta landalur eta uriguneetako bizileku ezbardinak ezagutzeko aukerea izango dabe, baita ordukoen antolaketa politikoaz gehiago ikasteko aukerea be.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Nota de prensa

Retorno a las costumbres parlamentarias de la Merindad de Durango

- **Comienzan las visitas escolares a la Casa de Juntas de Gerediaga dentro del programa “La Ruta del Merino” organizada por Gerediaga Elkartea con la colaboración de las Juntas Generales de Bizkaia.**

Gerediaga, a 27 de noviembre de 2012

Los escolares del colegio Landako han tenido hoy una cita con la historia parlamentaria del Duranguesado en la Casa de Juntas de Gerediaga. Las juntas extraordinarias que se celebraban frente a la antigua ermita de San Salvador y San Clemente en el barrio de Gerediaga (Abadiano), bajo el roble foral y junto a los 12 mojones dispuestos en semicírculo, uno por cada representante de cada anteiglesia, es uno de los principales puntos de interés de un programa de visitas, conocido como la “La Ruta del Merino”, que organiza Gerediaga Elkartea con la colaboración de las Juntas Generales de Bizkaia. Jóvenes visitantes de la comarca conocerán el histórico emplazamiento desde donde se tomaban las decisiones políticas que afectaban a los habitantes de la Merindad de Durango desde casi la Edad Media.

La visita incluye un recorrido guiado por la Casa de Juntas de Gerediaga, un lugar de amplia carga simbólica, que terminó de restaurarse en el año 1995 gracias a las Juntas Generales de Bizkaia, con la intención de recuperar su primitivo cometido: servir de escenario para volver a reunir a los actuales representantes de Bizkaia, como ocurría en el pasado. Además, los estudiantes visitan otros puntos de interés de la Merindad como San Juan de Momoito, Garai, la Casa Juzgado de Astola (Abadiño), la Torre de Muntsaratz (Abadiño), San Agustin de Etxebarria y Elorrio.

La iniciativa de Gerediaga Elkartea fue puesta en marcha en el año 2009 en el marco de las Jornadas Europeas del Patrimonio, que organiza la Diputación Foral de Bizkaia. A lo largo de toda una mañana, los centros escolares que reserven día con cita previa (en la web www.gerediaga.com o en el teléfono 94 681 80 66), tendrán la oportunidad de realizar una excursión por los lugares más significativos de lo que fuera la Merindad de Durango y conocerán los diversos tipos de asentamientos rurales y urbanos, y su forma de organización política.